| | | |
|---|---|---|
| udalsarea21 jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea red vasca de municipios hacia la sostenibilidad | **ACTA DEL EKITALDE "URA"** ***EKITALDEAREN AKTA*** **Nº Acta / Akta zk.: 5** | EKITALDEA |

| | | |
|---|---|---|
| **Data / Fecha: 2012/12/13** | **Ordua / Hora: 09:00-14:00** | **Lekua / Lugar: Ataria, Vitoria-Gasteiz.** |
| **Parte-hartzaileak / Asistentes:** | | **Akta bidali / Envío Acta:** |
| **Muskizko Udala / Ayuntamiento de Muskiz** | Ana María Carcelén Ramírez | Jose Mª Arregui, Azpeitiko Udala / Ayto. de Azpeitia |
| **Goieki-Goierriko Ekimena S.A.** | Iker Azurmendi Sierra | Jose Miguel Ruíz Igartua, Loiuko Udala / Ayto. de Loiu |
| **Zierbenako Udala / Ayuntamiento de Zierbena** | Nerea Gómez Martínez | Iban Gómez, Barakaldoko Udala / Ayto. de Barakaldo |
| **Arrasateko Udala / Ayuntamiento de Arrasate** | Rafael Ugarte | Marta Adrados Melchor, Barakaldoko Udala / Ayto. de Barakaldo |
| **Zierbenako Udala / Ayuntamiento de Zierbena** | Xabier Arce Fernández | Igor Sánchez del Amo, Berangoko Udala / Ayto. de Berango |
| **Enkarterri** | Ainhoa Ibañez Diaz | Gorka López, Balmasedako Udala / Ayto. de Balmaseda |
| **Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea / Mancomunidad de Servicios de Uribe Kosta** | Izarra Elortegi Bilbao | Amaia Argarate Olazar, Azkoitiko Udala / Ayto de Azkoitia |
| **Andoaingo Udala / Ayuntamiento de Andoain** | Ramón Varela | |
| **Legutioko Udala / Ayuntamiento de Legutiano** | Rocío López de Lapuente Díaz de Otazu | |
| **Zarauzko Udala / Ayuntamiento de Zarautz** | Begoña Rodríguez Iraeta | |
| **Hondarribiko Udala / Ayuntamiento de Hondarribia** | Naroa Susperregi Iragorri | |
| **Laudioko Udala / Ayuntamiento de Laudio** | Miren Larrinaga | |
| **Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del agua** | Eneko Albizuri | |
| **Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del agua** | Victor Peñas | |

| | |
|---|---|
| **Landutako gaiak:** | **Temas tratados:** |
| **1. Bisita gidatua Salburuako hezegunean barrena**<br><br>Salburuako hezegunera bisita gidatua, Luis Loboren, CEAko teknikariaren, laguntzaz. | **1. Visita guiada por el humedal de Salburua**<br><br>Visita guiada al humedal de Salburua, con Luís Lobo, Técnico del CEA. |
| **2. Jardunaldiaren edukiaren aurkezpena**<br><br>Víctor Peñasek jardunaldiaren edukia eta dinamika azaldu ditu. | **2. Presentación del contenido de la Jornada**<br><br>Víctor Peñas pasa a explicar el contenido y dinámica de la jornada. |
| **3. Hiri-inguruneetako ingurune hidrikoaren diagnostikoa eta kontserbazio-egoera** | **3. Diagnóstico y estado de conservación del medio hídrico en los entornos urbanos.** |

| | |
|---|---|
| Victor Peñasen aurkezpena: hiriguneetako ingurune hidrikoaren diagnostikoa eta kontserbazio-egoera, eta kalte eta inpaktu esanguratsuenen arrazoiak eta ondorioak | Presentación por parte de Victor Peñas sobre el Diagnóstico y estado de conservación del medio hídrico en los entornos urbanos y las causas y consecuencias de las afecciones e impactos más significativos. |
| **4. Atsedenaldia, kafe-ordua.** | **4. Pausa Café** |
| **5. Uren Administrazioak hiri-inguruneetako ur-inguruneen degradazioa geldiarazteko hartutako neurriak eta hobekuntza-proposamenak**<br><br>Victor Peñasek azaldu zuen zer neurri jakin hartu dituen Administrazio Hidraulikoak hiriguneetako ingurune hidrikoen degradazioa geldiarazteko. | **5. Medidas, desde la Administración Hidráulica, para frenar la degradación del medio hídrico en los entornos urbanos y propuestas de mejora**<br><br>Presentación a cargo de Victor Peñas sobre las medidas concretas que la Administración Hidráulica adopta para frenar la degradación del medio hídrico en los entornos urbanos. |
| **6. Hiri-inguruneetan ibaiak leheneratzea. Printzipioak eta oinarriak (URA): Zein dira ibaietako mantentze-lanak?: HHSak jasotzea, erriberako landareak kontserbatzea, espezie inbaditzaileak...**<br><br>Bigarren atalean, hiriguneetan ibaiak leheneratzeko neurriak azaldu zituen Victorrek, eta ibilgua mantentzearen kontzeptua aurkeztu zuen | **6. Restauración fluvial en entornos urbanos: Principios y fundamentos (URA): ¿Qué entendemos por mantenimiento de ríos?: limpiezas de RSU, conservación de la vegetación de ribera, especies invasoras...**<br><br>En un segundo apartado, Victor introdujo las medidas de restauración fluvial concretas en entornos urbanos, e introdujo el concepto de mantenimiento de cauces. |
| **7. Proposamenei buruzko eztabaida**<br><br>Parte-hartzaileen ekarpenak.<br><br>Ekitaldearen bileran, Uraren Euskal Agentziak ematen duen zerbitzua hobetzeko kontuan hartu beharreko iritziak eta eskaerak plazaratu zituzten teknikariek.<br><br>Legutiokoek 2015eko EAEko Saneamendu Gidaplanari eta horrek udalerrien kudeaketan duen eraginari buruzko informazio gehiago emateko edo horren berri emateko ekitaldiren bat antolatzeko eskatu zuten.<br><br>Zierbenakoek esan zuten komunikazio gutxi dagoela Ibaien Ikuskapenarekin ibaien egoera ona zaintzeari dagokionez, eta ez litzakeela txarra izango Ibaien Ikuskapenak berak udalak estutzea , Ibilguen Mantentze-lanetarako errespetuzko zerbitzu bat susta dezaten. Halaber, aipatu zuten URAri bidalitako eskaerei, txostenei eta idatziei erantzuteko denbora luzeegia dela, eta faltan ematen zutela erakundeen arteko lankidetza estuagoa. | **7. Debate y discusión sobre propuestas planteadas**<br><br>Aportaciones de los y las participantes.<br><br>A lo largo del Ekitalde, los técnicos y las técnicos que participaron nos trasladaron opiniones y solicitudes a tener en cuenta para la mejora del servicio que brinda la Agencia Vasca del Agua.<br><br>Desde Legutio, nos trasladaron la necesidad de ofrecer información o celebrar algún tipo de acto en el cual ofrecer más información sobre el Plan Director de Saneamiento de la CAPV -2015 y su implicación en la gestión de los municipios.<br><br>Desde Zierbena, plantearon que hay poca interlocución con la Inspección Fluvial a la hora de velar por el buen estado de los ríos y que no estaría de más que la propia Inspección Fluvial instara a los Ayuntamientos a la promoción de un servicio de Manteniminento de Cauces respetuoso. Asimismo, comentaron que los tiempos de respuesta de las solicitudes, informes y escritos a URA era demasiado alto y que echaban de menos una más estrecha colaboración interinstitucional. |

| | |
|---|---|
| Zarauzkoek Astiko ubidea leheneratzeko proiektua aipatu ziguten. Udalekoek ibaia garbitzeko eskatu zioten URAri, eta agentziakoek erantzun zieten ertzak berreskuratzearen mende zegoela hori. Hala ere, proiektuak ez du erantzunik jaso oraingoz. | Desde Zarauz nos comentaron el ejemplo concreto del proyecto de restauración de la regata de Azti, en el que desde el Ayuntamiento se solicitó al URA la limpieza del río y desde la Agencia se respondió que ésta debía de condicionarse a la recuperación de los márgenes; si bien, apuntan a que el proyecto ha quedado sin respuesta hasta la fecha. |
| | |